

**[UDABERRI ZEIN UDA]**

Udaberri zein uda atsegin  
ala igande zoriontsu eta handi,  
dena adiskide artean,  
poza noranahi barrutik kanpora  
aire usain gozozko batez,  
gainean ia  
oporraldia.  
Kurtsoa  
badoa

hiri eder hartako geltoki  
eta atari abegitsu hartara,  
portu apain hartara,  
paradisu hartako  
sarrera zoragarrira.

Bagoaz eta sartuko gara  
eta zehartuko dugu jendea jaitan den  
zelai oparoa.

Beti eta hala behar delako  
aurrean badugu zerbait  
lana eramankor egiten diguna.

Oporrak, oporraldia  
pauso batera dugu argi  
atsedena zabalki eskaintzen.

Mundu eta erbeste honetan,  
plaza maitagarri baten poza,  
kiosko baten aukera,  
lagunarte alai baten atsegin paregabea  
aurkituko dugu, poz handienetarako arnasa  
zoragarri bat bezala hortxe,  
zorion ederrezz.